



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

**UDALBATZARRAK 2014ko ABENDUAREN 16an EGINDAKO OHIKO
BILKURAREN AKTA**

2014ko abenduaren 16an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 20.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakartzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Onintza Gorostidi Murua
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Leire Otegi Elola
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Uxue Etxebeste Eizagirre

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

- 1. Aurreko bilkuretako akten onespena.**
2014ko urriaren 28an egindako ohiko bilkuraren akta.
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Fakturak eta ordainketak.**
- 4. Erniozale kultur elkarteak, 2014 urtean antolatutako zortzi herrien arteko ibilaldiari dagokion diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada**
- 5. Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 2014ko 3. Eta 4. Hiruhilabeteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada.**
- 6. Alkizako Udala eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren lankidetzaren hitzarmenaren onespena, Alkizako udal erroldaren lagapenari buruzkoa.**
- 7. Harrera Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**
- 8. Amañili Alkizako emakumeen Elkarteak, 2013 urtean jasotako diru-laguntzaren kitapenaren onespena, hala bada.**
- 9. Alkizako Agina Barrena baserriko terrenoetan eraikitako eskuin aldeko etxebizitzari, lehen erabilera baimena ematea, hala**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

- bada.I.E.G.**
10. Alkizako Herri Ostatuko zerbitzu publikoaren ustiakuntza, urte beteko esleipenaren onespena, hala bada.
 11. Eneko Iturbe Udal Arkitekto Teknikoak prestatutako "Alkizako Herri eskolako galdararen eraberritzea" izeneko memoria eta aurrekontua onestea, hala bada
 12. 6/2014 Kreditu aldaketaren hasierako onespena, hala bada.
 13. Irabazi xederik gabeko erakundeek eginiko diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada.
 14. Espetxe zigorrak Alkizako udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamendua bertan behera uztea, hala bada.
 15. Beste batzuk.
 16. Erregu, galdera eta mozioak.

.../...

LEHENENGO PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2014ko urriaren 28ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Akta Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

51/2014 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 10ekoa, faktura txikien zerrenda onestu eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

52/2014 Alkatetza Ebazpena, urriaren 28koa, Kreditu gaikuntzaren bidez egin beharreko 27.000 eurotako kreditu aldaketarako espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

53/2014 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 28koa, faktura txikien zerrenda onestu eta bere ordainketa burutu dadila agintzea, ebazten duena.

54/2014 Alkatetza Ebazpena, abenduaren 2koa, Soroa Arquitectos S.L.P.-ri aurkezturako lan proposamena egiteko onespena ematea, ebazten duena.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

55/2014 Alkatetza Ebazpena, azaroaren 26koa, Kreditu gehigarrien espedienteari hasiera ematea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA
FAKTURAK ETA ORDAINKETAK

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:

PAISAIA	7849,27
HONTZA LIBURUTEGIA	152,28
MOVISTAR	212,15
AUDAX	180,67
ANTENAS ADARRA	397,12
ANTENAS ADARRA	143,02
BIDATEK	2359,5
EUSKALTEL	120,72
CORREOS	21,18
IVAP	170
AUDAX	535,27
QUISER	165,64
QUISER	358,31
TOLOMENDI	6750
REGISTRO DE LA PROPIEDAD	166,73
TOLOMENDI	122,4
SOROA ARQUITECTOS S.L.P	2904
ENEKO ITURBE REKONDO	120
IZADI LABORATEGIA	152,94
ZURIARRAIN ITURGINTZA	488,9
CARREFOUR	40,9
HONTZA LIBURUTEGIA	125,15
ARGITU	140,48
EBA ERKIZIA	371,33
IZFE	1686,9
CONSTRUCCIONES ECHAIDE	11182,69
BELARMENDI MENDIKO NEKAZARITZA E.	581,47
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1347,71
TOLOSALDEKO MENDI NEKAZARITZA E.	122,4
CONFEDERACION HIDROGRAFICA DEL CANTABRICO	223,15



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

IZADI LABORATEGIA	193,6
ENEKO ITURBE REKONDO	242
LUIS MARIA CHAPARTEGUI	1056,25
ZURIARRAIN ITURGINTZA	1691,58
ELECTRICIDAD ZIZURKIL S.L.	909,22
FONTANERIA ANTZIETA	139,59
M.URANGA S.L.	232,3
XOILAN	3388
AUDAX	173,95
AUDAX	529,88
EUSKALTEL	115,3
SOLRED	141,97
ARGITU	140,48
AUDAX	164,09
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	161,86
OBBTKN	5000
AUDAX	391,7
AUDAX	287,67
AUDAX	207,82
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1108,33
AUDAX	515,67

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **55.983,54** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

ERNIOZALE KULTUR ELKARTEAK, 2014 URTEAN ANTOLATUTAKO ZORTZI HERRIEN ARTEKO IBILALDIARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Erniozaleak kultur Elkarteak aurkezturiko, 2014an egindako mendi ibilaldiaren, diru-kontuen kitapena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BAKARRA: Erniozaleak Kultur Elkarteak aurkezturiko, 2014 urtean egindako mendi ibilaldiaren, diru-kontuen kitapena onestea. Ondorengo izanik:

-Sarrerak: 12.254,15€

-Gastuak: 7.880,70€

-Soberan gelditzen dena hurrengo ibilaldietarako: 4.373,45€

BOSTGARREN PUNTUA

AIZTONDO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEARI 2014KO 3. ETA 4. HIRUHILABETEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak aurkeztutako idatzia, non Alkizako Udalak 2014 ekitaldirako 3. eta 4. hiru hilabeteari dagokion ekarpena burutu dezan eskaera egiten duen, sortu daitezkeen gastuei aurre egin ahal izateko.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateari 16.000 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA.- 2014 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa dagoela aurreikustea.

HIRUGARRENA.- 16.000,00 eurotako gastua onestea.

SEIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO UDALA ETA GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN LANKIDETZA HITZARMENAREN ONESPENA, ALKIZAKO UDAL ERROLDAREN LAGAPENARI BURUZKOA

Ikusirik Gipuzkoako garraioaren lurralde agintaritzak eginiko eskaera, non Udal erroldaren datuak egiaztatzeko lankidetzaren hitzarmenaren zirriborroa igorri dute, Alkizako Udalak bere onespena emateko. Agintaritzak MUGI sistema kudeatzen du, MUGI/Lurraldebus txartela bateratze tarifarioaren ardatza delarik. Erabiltzaileek txartela hauek eskuratu ahal izateko zenbait kasuetan derrigorrezkoa da Gipuzkoan erroldatuta egotea, horretarako dagokion errolda ziurtagiria eskatzen dutelarik. Beraz, egin nahi dena da hitzarmen honekin, Alkizako herritarren eskaerak egiaztatzea, udal erroldaren bidez, honek errolda ziurtagiria eskatzea ordezkatzeko delarik.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udala eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren artean, udal erroldaren lagapenari buruzko lankidetzaren hitzarmenaren onespena.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, hitzarmen hau sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzari ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

HARRERA ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik Harrera Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaera, preso eta errefuxiatu ohiei hasierako harrera emateko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek , aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.-. Harrera Elkarteari 100,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENGOA: Erabaki honen berri Harrera Elkarteari ematea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

AMAÑILI ALKIZAKO EMAKUMEEN ELAKARTEAK, 2013 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udalak, 2014urtean Amañili Alkizako emakumeen Elkarteari 2013. Urteari dagokion 320 eurotako diru-laguntza eman ziola.

Ikusirik Amañili Alkizako emakumeen Elkarteak, Alkizako Udalean aurkeztu dituela, 2013. Urteari dagokion gastuen kitapena, ondorengoa izanik:

GASTUAK:

Hipopresibo ariketak.....100,00

Pantallas amigasen hitzaldiaren zati bat..... 220,00

GUZTIRA: 320,00€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Gaia aztertutrik Udalbatza honek, Onintza Gorostidi zinegotziaren abstentzioarekin, aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Amañili Alkizako emakumeen Elkarteak, aurkezturiko 2013. Urteari dagokion gastuen kitapena onestea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

ALKIZAKO AGINA BARRENA BASERRIKO TERRENOETAN ERAIKITAKO ESKUIN ALDEKO ETXEBIZITZARI, LEHEN ERABILERA BAIMENA EMATEA, HALA BADA I.E.G.

Ikusirik I.E.G. jaunak Alkizako Agina barrena baserriaren inguruko terrenoetan eraiki duen eskuin aldeko etxebizitzaren lehen erabilera baimena emateko eskaera aurkeztu duela.

Ikusirik eskaerarekin batera obraren behin-betiko planoak, obra amaiera ziurtagiria, elektrizitate eta gas ziurtagiriak eta obra berriko eskritura aurkeztu dituela.

Ikusirik 2014ko abenduaren 10ean Udal aholkulari teknikoak eginiko txostenean dioena:

“ALKIZAKO AGINAGA BARRENA BASERRIKO LURRETAN EGINDAKO ERAIKINAREN ESKUIN ALDEKO ETXEBIZITZAREN LEHEN ERABILERAROKO BAIMEN ESKAERARI TXOSTEN TEKNIKOA

I.E.G. jaunak bere etxebizitzaren lehen erabilerako baimena eskaera ikusirik, eta 2014ko abenduaren 3an ikuskaritza bisita teknikoa egin ondoren, egindako obra, lizentzia eskatzerakoan aurkeztu zen “oinarrizko eta eraikitako proiektuari” egokitzen zaiola adierazten dut, eta baimena lortzeko beharrezkoak diren dokumentuak aurkeztu direnez, egokia izango da aipatutako baimena ematea.”

Gaia aztertutrik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU

LEHENGOA.- Alkizako Agina barrena baserriaren terrenoetan eraiki den eskuin aldeko etxebizitzari, lehen erabilera baimena ematea.

BIGARRENGOA.- I.E.G. eta A.E.G. jaunei jakinarazi, Alkizako Agina barrena



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

baserriaren terrenoetan eraiki den bi bizitzako etxeari 40.000 m2 loturik gelditu behar direla.

HIRUGARRENGOA.-Erabaki honen berri I.E.G. jaunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

ALKIZAKO HERRI OSTATUKO ZERBITZU PUBLIKOAREN USTIAKUNTZA, URTE BETEKO ESLEIPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2014ko irailaren 16an Alkate ebazpen bidez Herri ostatu jatetxearen zerbitzu publikoaren kudeaketa L.M.C. jaunari eman zitzaiola prozedura zuzenez, 2014ko urriaren 9tik 2014ko abenduaren 31arte.

Ikusirik, L.M.C. jauna prest dagoela beste urte betez aipaturiko zerbitzuarekin jarraitzeko eta Alkizako Udala ados dagoela proposamen horrekin.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: L.M.C. jaunari Herriko ostatu jatetxearen zerbitzu publikoa kudeatzeko kontratua urte betez luzatzea (2015eko urtarrilaren 1etik 2015eko abenduaren 31arte).

BIGARRENA: L.M.C. jaunari jakinarazi, Udaletxe honetara bertaratu beharko duela dagokion kontratua eta inbentarioa sinatzera.

HIRUGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmentzea, kontratua sina dezan.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri L.M.C. jaunari ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

ENEKO ITURBE UDAL ARKITEKTO TEKNIKOAK PRESTATURIKO "ALKIZAKO HERRI ESKOLAKO GALDARAREN ERABERRITZEA" IZENEKO MEMORIA ETA AURREKONTUA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik 2014ko azaroaren 12ko agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziakoa arautzen den (Udalaguntza-2014)



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako Herri Eskolan beharrezkoa dela hainbat lan burutzea, zerbitzu egoki bat eman ahal izateko. Horretarako Eneko Iturbe Udal Arkitekto Teknikoak prestatu du “Alkizako herri eskolako galdararen eraberritzea” izeneko memoria eta aurrekontu bat.

Ikusirik Alkizako Udalak asmoa duela Alkizako Herri Eskolan egin behar dituen lanak finantzatu ahal izateko diru-laguntza eskaera egitea, Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kulturako sailburuak onarturiko 2014ko azaroaren 12ko aginduaren babesean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Eneko Iturbe Udal Arkitekto Teknikoak prestatutako “Alkizako herri eskolako galdararen eraberritzea” izeneko memoria eta aurrekontua onestea.

BIGARRENA.- Alkizako Herri Eskolan egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2014ko azaroaren 12ko agindua, Hezkuntza, Hizkuntza politika eta Kulturako sailburuaren babesean. Honen bidez, hezkuntza-administrazioaren mendeko ikastetxeak dituzten udal jabetzako eraikinetan obrak egiteko gastuen finantziakoa arautzen den (Udalaguntza-2014).

HAMABIGARREN PUNTUA

6/2014 KREDITU ALDAKETAREN HASIERAKO ONEPENA, HALA BADA

Udala honen 2014 urteko Aurrekontuari eragiten dion gastuen aurrekontu partiden arteko kreditu gehigarri bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari-kontuhartzaileak egindako txostena irakurri da, zeinak adierazten baitu aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola, zehazki abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoa denak 34.1 artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratuek, ahobatez honako hau

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen kreditu gehigarriaren espedienteari hasierako onepena ematea, Udala honen Aurrekontuari



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Gastuak eta kreditu aldaketa egiteko proposamena

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0000.120.120.00.01 2014	FUNTZIONARIOEN OINARRIZKO SOLDATA	22.000,00	1.600,00	23.600,00
1 0000.131.120.00.01 2014	ALDARTEKO LABORALEN SOLDATA	37.000,00	2.700,00	39.700,00
1 0000.141.510.00.01 2014	enplegu planeko langileak	9.750,00	2.600,00	12.350,00
1 0000.160.120.00.01 2014	GIZARTE SEGURANTZA	34.000,00	3.400,00	37.400,00
1 0000.160.410.00.05 2014	ASISTENTZIA MEDIKU FARMAZEUTIKOA	800,00	130,00	930,00
1 0000.201.431.00.01 2014	eskolako lokala alokairua	1.800,00	378,00	2.178,00
1 0000.210.510.00.02 2014	ARGI PULIKOAREN KONPONKETAK	500,00	700,00	1.200,00
1 0000.227.431.00.01 2014	ostatuko garbiketa lanak	0,00	2.800,00	2.800,00
1 0000.211.120.00.01 2014	ERAIKINEN KONPONKETAK	4.000,00	1.100	5.100
1 0000.212.500.00.01 2014	MAKINERIA INSTALAZIOAK ETA TRESNERIA	3.500,00	802,00	4.302,00
1 0000.220.120.00.01 2014	BULEGO MATERIALA	1.500,00	700,00	2.200,00
1 0000.220.120.00.02 2014	PRENTSA, ALDIZKARI ETA BESTELAKO ARGITAL	100,00	100,00	200,00
1 0000.221.452.00.01 2014	FRONTOIA . ARGINDARRA	500,00	200,00	700,00
1 0000.221.431.00.03 2014	don juanena gasa	1.200,00	100,00	1.300,00
1 0000.221.120.00.09 2014	GARBIKETAKO PRODUKTOAK	600,00	900,00	1.500,00
1 0000.222.120.00.01	UDALA. TELEFONOA	2.500,00	600,00	3.100,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

2014				
1 0000.222.120.02.01 2014	telefono mugikorrak	1.200,00	300,00	1.500,00
1 0000.224.120.00.01 2014	ERAIKIN ETA LOKALEN ASEGUROA	2.500,00	150,00	2.650,00
1 0000.224.120.00.99 2014	BESTE ARRISKUEN ASEGURU POLIZAK	2.000,00	90,00	2.090,00
1 0000.226.441.00.01 2014	uraren kanona	300,00	196,00	496,00
1 0000.227.121.00.07 2014	i.k.t teknikaria	1.470,00	479,00	1.949,00
1 0000.227.120.00.09 2014	FORU ALDUNDIA. DIRUBILKETA	1.000,00	200,00	1.200,00
1 0000.422.460.00.01 2014	AIZTONDO	30.000,00	1.000,00	31.000,00
1 0000.431.910.01.01 2014	EUDEL	300,50	0,01	300,51
1 0000.481.422.00.01 2014	ESKOLA DIRULAGUNTZA	480,00	120,00	600,00
1 0000.481.451.00.01 2014	OILATEGITIK DIRULAGUNTZA	1.500,00	500,00	2.000,00
1 0000.481.452.00.03 2014	AIZTONDO KLASIKA DIRULAGUNTZA	1.500,00	27,00	1.527,00
1 0000.600.441.00.01 2014	TERRENO EROSKETA	70.000,00	3.424,66	73.424,66
1 0000.622.431.00.01 2014	eskolako obrak	14.171,00	1.900,00	16.071,00
1 0000.623.442.00.02 2014	HONDAKIN KUDEAKETA GASTUA	1.000,00	570,00	1.570,00
1 0000.626.120.00.01 2014	gipuzkoashare proiektua	0,00	242,00	242,00
1 0000.682.431.00.01 2014	elizako kanpaia zaharberritzea	0,00	3.237,00	3.237,00
1 0000.221.422.00.01 2014	ESKOLA,HAUR ESKOLA.ARGIN.	3.000,00	1.000,00	4.000,00
1 0000.221.431.00.01 2014	UDALA,DON JUANENA ARGINDARRA	4.000,00	1.200,00	5.200,00
1 0000.221.433.00.01 2014	KALEKO ARGINDARRA	2.600,00	700,00	3.300,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

1 0000.221.451.00.01 2014	KULTUR ETXEA. ARGINDARRA	1.900,00	500,00	2.400,00
1 0000.221.513.00.04 2014	ERREGAI ETA KARBURANTEAK	2.000,00	300,00	2.300,00
1 0000.226.120.00.99 2014	BESTE HAINBAT GASTU	1.000,00	100,00	1.100,00
1 0000.481.320.00.01 2014	IRABAZIZKO XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEI	500,00	523,00	1.023,00
1 0000.481.452.00.02 2014	ERNIOZALEAK DIRULAGUNTZA	370,00	4,00	374,00
1 0000.625.420.00.01 2014	parkea	42.300,00	900,00	43.200,00
1 0000.685.431.00.01 2014	OSTATUKO TRESNERIA	2.000,00	2.300,00	4.300,00
1 0000.227.120.00.99 2014	ARGITU	2.000,00	1.400,00	3.400,00
1 0000.220.451.00.02. 2014	LIBURUTEGIKO FONDOAK ETA HARPIDETZAK	700	30	730
GUZTIRA		309.541,50	40.202,67	349.744,17

Kreditu gehigarriak finantziazteko proposamena

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
d	1 0000.480.451.00.01 2014	partikularrei dirulaguntzak	7.420,00
d	1 0000.481.451.00.03 2014	itxurain elkarteak	960,00
c	2 0000.710.000.00.06 2014	eskolako obrak dirulaguntza	3.120,00
c	2 0000.720.000.00.09 2014	elizako kanpaia zaharberritzea	1.000,00
c	2 0000.722.000.00.01 2014	TOLOMENDI	1.738,00
c	2 0000.720.000.00.06 2014	jaiak dirulaguntza	2.122,00
c	2 0000.710.000.00.02 2014	E.J. teknologi berriak	757,00
c	2 0000.310.000.00.09 2014	URA TASA	2.600,00
c	2 0000.310.000.00.01 2014	ZABORBILKETA ZERBITZUAREN TASA	1.000,00
c	2 0000.480.000.00.01 2014	PARTIKULAR APORTAZIO INHAUR HAUNDI ZUBIA	1.738,00



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

d	1 0000.210.441.01.01 2014	UR AZPIEGITURA HORNIDURA ETA BANAKETA	3.791,68
c	2 0000.282.000.00.01 2014	ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEKO	4.500,00
c	2 0000.112.000.00.02 2014	HIRI ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA	1.000,00
d	1 0000.422.442.00.01 2014	TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	7.625,99
d	1 0000.160.310.00.04 2014	ELKARKIDETZAKO KUOTAK	300,00
d	1 0000.210.432.00.01 2014	AZPIEGITURA ETA ONDASUNEN MANTENIMENDUA	500,00
d	1 0000.220.120.00.03 2014	INFORMATIKAKO MATERIALA	30,00
FINANTZAKETA GUZTIRA			40.202,67

KODEEN AZALPENA

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

BIGARRENA.- Iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den hurrengo egunetik hasita eta hamabost eguneko epean, espedientea jendeaurrean ipintzea edonork egoki dituen erreklamazio zein iradokizunak burutu ditzan. Baldin eta erreklamaziorik egongo ez balitz, espedientea behin betikotzat onartuta geratuko litzateke besterik gabe.

HIRUGARRENA: 2014ko abenduaren 3an egindako Idazkariaren komunikazioa onestea, non azaltzen den:

“Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2014rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hala ere, kontuan izanda 2014rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Dena den, gaikuntza espedienteak honako finantziakzioa du :

-Sarrerren gehitzea.....19.575,00
-Gastuen gutxitzea.....20.627,67

Eta argi eta garbi ikusten da gaikuntza espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen."

HAMAHIRUGARREN PUNTUA

IRABAZI XEDERIK GABEKO ERAKUNDEEK EGINIKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2014 urtean zehar irabazi xederik gabeko erakundeek Alkizako Udaletxean aurkeztu dituzten diru-laguntza eskaerak.

Ikusirik Behin Behineko Idazkari Kontuhartzaileak adierazi duela diru-laguntzak esleitzeko azaroaren 17ko 38/2003 Legeak xedaturikoa hartu beharko litzaketela kontutan.

Ikusirik 2014 urterako Alkizako Udalaren aurrekontuan partida nahikoa aurreikusi dela.

Gaia azterturik Udalbatza honek aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- Irabazi asmorik gabeko ondorengo erakundeei diru-laguntza esleitzea:

- Nafarroa Oinez 2014.	100,00 euro.
- Herri Urrats 2014	100,00 euro.
-Korrika	200,00 euro

GUZTIRA	400,00 euro
---------	-------------

BIGARRENA.- Interesdunei akordio honen berri ematea.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HAMALAU GARREN PUNTUA

ESPETXE ZIGORRAK ALKIZAKO UDALAREN ALDE LAN EGINEZ ORDEZKATZEKO ERREGELAMENDUA BERTAN BEHERA UZTEA, HALA BADA

Ikusirik E.A.E. ko Auzitegi Nagusia administrazioarekiko auzien salatik Larraulgo Udalera iritsi dela Estatuko Administrazioaren izenean Estatuko Abokatuak tartekaturiko administrazioarekiko auzi-errekurtso bat, errekurritutako jarduna ondorengo delarik:

“Acuerdo de 19/12/2013 del Ayuntamiento de Larraul publicado en BOG nº 24/02/2014 por el que se acuerda aprobar definitivamente el reglamento para la sustitución de penas de prisión por trabajos en beneficio del Ayuntamiento de Larraul.”

Segidan, Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuei jakitera ematen die Alkizako Udalak ere onarturik duela Espetxe zigorrak Alkizako udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamendua. Beraz, helegitea iritsi baino lehen, erregelamendua bertan behera uzteko proposamena egiten die batzarkideei, erregelamendu honek, Konstituzioa, Kode Penal eta 840/2011 Errege Dekretuak finkatzen duena urratzen duelako.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, 2014ko otsailaren 26an behin betikoz onarturiko Espetxe zigorrak Alkizako udalaren alde lan eginez ordezkatzeko erregelamendua bertan behera uztea, Gipuzkoako Aldizkari ofizialean 2014ko irailaren 2an argitaratutakoa.

BIGARRENA: Erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Estatuko Abokatuari ematea.

HAMABOST GARREN PUNTUA

BESTE BATZUK

15.1.LANKIDETZA HITZARMENA, ALKIZAKO UDALA ETA TOLOMENDI GARAPEN ELKARTEAREN ARTEAN, TOLOSALDEKO UDALERRIEN INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN DINAMIZAZIO ETA AHOLKULARITZA LANAREN SUSTAPENERAKO



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Tolomendi Landa Garapen Elkarteak informazio eta komunikazio Teknologien inguruan aholkularitza eta dinamizazio zerbitzua partekatua sustatzen dutela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta udalak erakundeak IKT inguruan egunean egoteko.

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela goian aipaturiko zerbitzu partekatua erabiltzeko. Horretarako dagokion hitzarmena prestatu delarik.

Gaia azterturik, Udaletxe honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udala eta Tolomendi Landa Garapen Elkartearen arteko lankidetzaz-hitzarmena onestea, Tolosaldeko Udalerrien informazio eta Komunikazio Teknologien dinamizazio eta Aholkularitza lanaren sustapenarerako.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko lankidetzaz-hitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolomendi Landa Garapen Elkarteari ematea.

15.2. KIROL BATZORDEAK, 2014 URTEAN JASOTAKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Alkizako Udalak, 2014urtean Kirol Batzordeari 1.920eurotako diru-laguntza eman ziola.

Ikusirik Kirol Batzordeak, Alkizako Udalean aurkeztu dituela, 2014. Urteari dagokion gastuen kitapena, ondorengoa izanik:

SAN ISIDRO (maiatzak 16,17 eta 18)

Ginkana: 50 €

Gaztetxoen Errueda Lasterketa: 100€

Mendi Ibilaldi ondorengo hamaiketako: 150€

Frontenis Txapelketa:

Trofeoak: 100€

Pelotak + nikiak: 50€

Txapelak: 140€



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

HERRIKO FESTAK (irailak 4,5,6,7 eta 8)

Gaztetxoan Txirrindulari proba: 300€

Pelota Txapelketa:

Pelotak: 100€

Trofeoak+ sagardoa: 180€

Txapelak: 70€

Gaztetxoan Pelota: 100€

Gaztetxoan toka: 60€

SAN MARTIN (azaroak 7,8 eta 9)

Gaztetxoan Errueda lasterketa: 100€

Mus eta Eskoba Txapelketa (trofeoak): 100€

SAN SILVESTRE

Gaztetxoan lasterketa: 190€

Hamaiketako 60€

GUZTIRA: 1.850€

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA.- Kirol Batzordeak, aurkezturiko 2014. Urteari dagokion gastuen kitapena onestea.

15.3.LANKIDETZA HITZARMENA, ALKIZAKO UDALA ETA TOLOSALDEA GARATZEN-en ARTEAN, TOLOSALDEKO UDALERRIEN TOKIKO AGENDA 21AREN JARRAIPENERAKO ETA TOKIKO EKINTZA PLANEN SUSTAPENERAKO

Ikusirik Tolosaldea Garatzen S.A.k, eskualdeko udalen arteko zerbitzu partekatuak sustatzen dituela, baliabideen erabilpen eraginkorrago batean laguntzeko eta garapen iraunkorreko proiektuak garatzeko plataforma moduan.

Ikusirik Eskualdeko udalerrri gehienak neurri txikikoak direla giza eta ekonomi baliabide urriekin, eta horren aurrean tokiko garapen jasangarriko proiektuak garatu eta behar bezala ezartzeko teknikariak modu partekatuan kontratatzea erabakitzen dela udalerrri hauetan ekimen horiek modu egokian ezartzen lagunduz.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako Udalak interesa duela goian aipaturiko zerbitzu partekatua erabiltzeko. Horretarako dagokion hitzarmena prestatu delarik.

Gaia azterturik, Udaletxe honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udala eta Tolosaldea Garatzen S.A.-ren arteko lankidetzahitzarmena onestea, Tolosaldeko udalerrien Tokiko Agenda 21aren jarraipenerako eta Tokiko ekintza planen sustapenerako.

BIGARRENA: Alkate-Lehendakaria ahalmenu aipaturiko lankidetzahitzarmena sina dezan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldea Garatzen S.A.-ri ematea.

15.4. H.G.I. JAUNAK EGINIKO ESKAERA AZTERTU, HALA BADA.

Ikusirik H.G.I. jaunak eginiko eskaera, hau da, Apaiztegi baserriak errepidera duen irteera oso arriskutsua dela eta gaur egunean kotxeak ibiltzen diren abiadura ikusita, egunen batean izugarrizko istripu bat gertatuko dela, beraz hori saihesteko Alkizako Udalarari eskatzen dio bi ispilu jartzea, behetik eta goitik datozen ibilgailu eta txirrinduak ikusteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: H.G.I. jaunari jakinaraztea Alkizako Udalak ezin dituela eskaturiko ispiluak jarri, gai hori, Gipuzkoako Foru Aldundiko errepideetako departamentuaren eskumena delako.

BIGARRENA: Erabaki honen berri H.G.I. jaunari ematea.

15.5.2/2014 KREDITU ALDAKETA ONESPENARI BURUZKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOAREN BERRI EMATEA

Ondoren Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioaren berri ematen da, ondorengoa diolarik:

“ Kreditu aldaketaren espedientearen kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2014rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Hala ere, kontuan izanda 2014rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

Dena den, gaikuntza espedienteak honako finantziakzioa du :

- Finantza aktiboen sarrerak6632,60 €

Eta argi eta garbi ikusten da gaikuntza espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.”

15.6.3/2014 KREDITU ALDAKETA ONESPENARI BURUZKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOAREN BERRI EMATEA

Ondoren Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioaren berri ematen da, ondorengoia diolarik:

“Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2014rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomikoa finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2014rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkaturiko duena.

Dena den, gaikuntza espedienteak honako finantziakzioa du :

- Finantza aktiboen sarrerak6.610,60 €

Eta argi eta garbi ikusten da gaikuntza espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.”

15.7.5/2014 KREDITU ALDAKETA ONESPENARI BURUZKO IDAZKARI KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOAREN BERRI EMATEA

Ondoren Idazkari-Kontuhartzailearen komunikazioaren berri ematen da, ondorengoia diolarik:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

“Kreditu aldaketaren espedientea kontuan hartuta, toki entitate honek ez du betetzen 2014rako gastu araua. Beraz, toki entitate hau behartuta legoke, berez, plan ekonomiko finantzarioa onartzera.

Hala ere, kontuan izanda 2014rako ezarritako defizit eta zor helburuak betetzen direla eta aurreko urteko likidazioan aurrezki garbia eta diruzaintza gerakina positiboak izan direla, Diputatuen Kontseiluaren Akordioa, 2013ko azaroaren 19ko Jarraibidearen 3. erregelari ezarritakoari jarraituz, kontu hartzaile honek berariazko txostena hau egin behar du eta udalbatzarrari jakinaraziko zaio, plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.

Dena den, gaikuntza espedienteak honako finantziakzioa du :

*- Zeharkako zergatik datozen sarrerak4.050,00 €
-Kapital transferentzitik datozen sarrerak..... 22.950,00€*

Eta argi eta garbi ikusten da gaikuntza espediente honek ez duela entitatearen finantza iraunkortasuna eta aurrekontuaren egonkortasuna zalantzan jartzen.”

HAMASEIGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ez dira aurkezten.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 23.00 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.